

## BESTELAKO XEDAPENAK

### GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

## 341

*AGINDUA, 2024ko abenduaren 20koa, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Fundación Obarburu de Asistencia Social izeneko fundazioaren eraketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baita.*

2024ko urtarrilaren 8an eskabide bat sartu zen Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren Erregistroan, Fundación Obarburu de Asistencia Social izeneko fundazioaren eraketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko. Horrekin batera, administrazio espedientean dagoen dokumentazioa aurkeztu zen.

Estatutuen 3. artikulua fundazioaren xedeak jasotzen ditu, hitzez hitz:

«(...) honako hauek dira fundazioaren xedeak: egoera ahulean dauden pertsona-taldeak artatzea, eta, oro har, bazterkeria- edo arrisku-egoeran dauden pertsonak (bereziki haur, nerabe eta gazteek) izan ditzaketen premiak asetzea. Horretarako, pertsona horiek gizar-teratzen lagunduko duten programa eta zerbitzu orokor eta/edo espezifikoak landu eta garatuko dira. (...)».

Fundazioaren hasierako zuzkidura 200.000 eurokoa da; horietatik 50.000 euro eratze-egintzan ordaindu ziren. Hala egiaztatzen du eraketa-eskriturari erantsitako 2023ko abenduaren 22an emandako banku-ziurtagiriak. Gainerako 150.000 euroak, eskrituraren bigarren xedapen-puntuan adierazten denaren arabera, modu berean ordainduko dira eskritura egiletsi eta urtebeteko epean.

Jarduerak garatzeko lurralde-eremu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoa da.

Estatutuen 9. artikulua ezartzen du patronatuak gutxienez hiru kide izango dituela; eta ez da gehieneko kide kopururik ezartzen.

Fundazioaren hasierako patronatua kargu eta kide hauek osatzen dute (pertsona fundatzaileak izendatu zituen eraketa-egintzan):

- Presidentea: Francisco Javier Larrañaga Aretxederra jauna.
- Idazkaria: Luis Ángel Antiza Ormaza jauna.
- Kidea: Enrique Goicolea Basaguren jauna.
- Kidea: Lucio Soler Celaya jauna.

Larrañaga jaunaren eta Antiza jaunaren karguen onarpena eraketa-egintzan bertan gauzatu zen. Goicolea jaunak eta Soler jaunak idazki pribatu bidez onartu zituzten beren karguak (notarioak legeztatutako sinadurekin). Idazki pribatu horiek eraketa-eskriturarekin batera protokolizatu ziren.

Presidente eta idazkari karguen iraupena mugagabea da, eta kideena lau urtekoa, fundazioaren estatutuen 9. eta 12. artikuluek xedatutakoaren arabera. Kargu-uzteak eta kide berrien izendapena estatutuen 9. artikulutik 11. artikulura bitarte araututa daude.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Aholku Batzordea 2024ko azaroaren 28an bildu zen inskripzio-eskaera aztertzeko, fundazioaren helburuen zilegitasuna eta interes orokorra eta haren bideragarritasuna direnaz bezainbatean. Aholku Batzordeak, aho batez, aldeko txostena eman zuen, bilkuraren aktan jasotakoaren arabera.

Era berean, 2024ko abenduaren 20an, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzak fundazioaren eraketari buruzko nahitaezko txostena eman du.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuak eman behar du, agindu bidez, eraketa espediente honen gaineko ebazpena, arau hauetan xedatutakoarekin bat etorritz: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 3.1.a) artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 9.1.n) artikulua; eta Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 3.1 artikulua.

Espediente honi funtsezko iritzitako datu eta dokumentu guztiak erantsi zaizkio, eta bereziki bete dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 7. artikulutik 12. artikulura eta 51.2 artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 41. artikuluan aurreikusitako baldintzak.

Hori guztia kontuan hartuta, hau

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Fundación Obarburu de Asistencia Social izeneko fundazioaren eraketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea F-495 erregistro zenbakiarekin, bai eta patronatuaren hasierako osaera ere, 2023ko abenduaren 22an, Getxon, Enrique María Ruiz Santaflorentina notario jaunaren aurrean egiletsitako eskritura publikoan –2024ko martxoaren 15eko eta maiatzaren 13ko eginbideen bidez zuzendua– jasotako baldintzetan (protokolo-zenbakia: 3370).

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

#### AZKEN XEDAPENA

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du, eta, ondorioz, honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburu honen aurrean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean; bestela, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 20a.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua,  
MARÍA UBARRECHENA CID.